

## EZTA ALA EZ DA?

Gasteizen, 2001eko otsailaren 6an

Ibon Olaziregi,  
Eusko Jaurlaritza

Olaziregi jauna, agur:

Zuregandik jaso ditugun bi galderei erantzuna ematera natorkizu lerro hauen bidez.

1. Lehenbizikoa honako hau zen: *Etorriko zara, ezta? ala Etorriko zara, ez da?* Aurretik esandako zerbaiten konfirmazioa nola idatzi behar litzatekeen eskatzeko erabili ohi dugun moldea.

Lehenbizikoz, esan behar dugu Euskaltzaindiak ez duela araurik eman honi buruz; beraz, *ezta* nahiz *ez da* idatz daitezkeela gaurkoz.

Nolanahi ere aukeratzen hasiz gero, Gramatika batzordekideak *ezta*-ren aldeko ginateke ondorengo arrazoiak direla medio:

— Literatura tradizioan biak erabili izan diren arren, forma fosildua gehiagotan erabili izan da.

— Gaur egungo erabileran ere forma hori nagusitu dela iruditzen zaigu.

Hori bai, forma bi horiek baino zaharragoa den beste bat erabili nahi izatera (*ez da hala*), orduan *ezta* baino egokiagoa litzateke forma bereizia, *ez da*. Gauza bera, formula horren baliokideak erabili nahi baldin baditugu ere: *ez al da hala*, *hala ez da*, eta abar.

2. Bestetik bizkaierazko *legez* postposizioaren erregimenaren gainean egiten diguzu bigarren galdera: ea *betiko legez* behar duen izan ala *beti legez*; *atzoko legez* ala *atzo legez*.

Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Menderakuntza-1)* liburuan esaten duguna nahikoa izan daiteke galderari erantzuna emateko. 358. orrialdean honako hau esaten da:

“(…) Denborazko aditzondo bat baldin badugu, berriz, *-KO* atzizkiaz hor-niturik agertuko zaigu:

e. Nik lanian jardun det betiko moduan (Txirrita, *Bertsoak I*, 159).

Zenbait euskaldunek, beharbada analogiaz, *legez*-i ere aplikatzen diote arau hori: *nire legez*, *ni legez*-en ondoan, *atzoko legez*, *atzo legez*-en ondoan, etab. Baina jokabide honek berria ematen du, horrelakorik ez baita literaturan ageri, dirudienez.”

Alegia, *-ko*-dunak ez ditugu hobesten berri samarrak direlako eta literatura tradizio idatzian erabili ere egin ez direlako. Gramatika batzordearen hau-tua, beraz, *atzo legez* eta *beti legez*-en aldekoa da.

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.

Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria